

Espedientearen kodea: 2024KH010001
Espedientearen gaia: 2023ko Aurrekontuaren Likidazioa
Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen. - Udal honen 2023ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n:		2.221.484,45
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		7.067.775,75
Aurrekontuko zordunak :	3.673.800,08	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	3.393.975,67	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		2.283.954,19
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	1.168.439,81	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.115.514,38	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		7.005.306,01
5.- Saldo kobragaitzak:		2.069.380,32
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		28.898,06
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		4.907.027,63

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-2.346.690,59
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-965.448,58
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	4.963.117,02
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	20.316,41
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.671.294,26

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	4.041.279,10
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.471.598,47
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	5.512.877,57

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024KH010001-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)